

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 4896

*IRAGARKIA, 2023ko urriaren 20koa, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira «Artzentes-Sopuerta Parke Eoliko eta haren ebakuazio-azpiegitura» proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak, Artzentes, Sopuerta, Galdames, Muskiz, Zalla eta Gueñesko udal-mugarteetan, guztiak Bizkaiko Lurralde Historikokoak.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, parke eoliko bidez, energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira Artzentes-Sopuerta Parke Eoliko eta haren ebakuazio-azpiegiturari dagozkion proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Erreferentzia: ATO/YMM.

Espedientea: 48-GE-Y-2022-00001.

– Artzentes-Sopuerta Parke Eoliko eta haren ebakuazio-azpiegitura proiektua, honetan datzana:

- 49.6 MW-ko parke eolikia, 6.2 MW-ko potentzia unitarioko 8 aerosorgailuz eta 30 kV-ko aerosorgailuen arteko interkonexiorako azpiegitura elektriko osatua, Artzentes, Sopuerta, Galdames eta Muskizko udalerrietan.

- Artzentes-Sopuerta 30/66 kV-ko azpiestazio jasotzailea, parke eolikoaren inguruan, Sopuertako udalerrian.

- Artzentes-Sopuerta 66/30 kV-ko konexio-azpiestazio murriztailea konexio-puntuaren inguruan, Gueñesko udalerrian.

- Ebakuazioko aireko linea, Artzentes-Sopuerta Parke Eolikoko Azpiestazio Jasotzailea eta Konexioko Azpiestazio Murriztailea lotuko dituen, aireko linearen iritsieran, La Jara azpiestazioko konexio-puntutik gertu. Linea Artzentes, Sopuerta, Zalla eta Gueñesko udalerrietan zehar joango da, eta 17.729 metroko luzera izango du.

- Lotura egiteko lurpeko linea, konexio-azpiestazio murriztailea La Jara azpiestazioarekin lotuko duena, 466 metroko luzerarekin eta Gueñesko udalerritik igaroko dena.

– Helburua: energia elektrikoa sortzea lurpeko teknologia berriztagarri eolikoaren bidez.

– Eskatzailea: Euskal Haizie, S.L.

–Eskaeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

2023ko urriaren 26a, osteguna

- Kokalekua: Artzentales, Sopuerta, Galdames, Muskiz, Zalla eta Gueñesko udalerrak.
- Aurrekontua, guztira: 57.504.316,00 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena ematea Bizkaiko Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta jendaurrean jarri behar da, ingurumen-inpaktuaren azterlanaren jendaurreko informazioarekin batera, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Hori guztia argitara ematen da interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa aztertu ahal izan dezaten sail honek Bizkaian duen lurralde-ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao) edo URL honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Ordezkaritza honetan egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan (bi kopia) edo EAeko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoko orokorraren bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Bilbao, 2023ko urriaren 20a.

Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkaria,  
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.